

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**
 - **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**
 - **Zergatik behar naute?**
-

Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Enpresak: Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko prest dauden enpresak, enpresa handiak ere gure bezeroak izan daitezke; normalean, enpresa horiek fundazio partikularrak dituzte beren irudi publikoa hobetzeko, dirua eskaintzen dute

Formakuntza zentroak: Trebakuntza eta prestakuntza programak eskaintzen dituzten erakundeak.

Gizarte erakundeak: Laguntza eta baliabideak eskaintzen dituzten elkarteak eta fundazioak.

Aholkularitza legal: Legedia eta inklusioaren kudeaketa aholkularitza.

Teknologia hornitzaileak: Ezintasuna duten pertsonen lan egiteko beharrezko tresnak eta teknologia.

Finantza erakundeak: Diru-laguntzak eta finantzaketa eskaintzen dituzten bankuak.

Komunikazio agentziak: Proiektua zabaltzeko marketin eta komunikazio estrategiak.

Segurtasun eta osasun enpresak: Lanpostuak seguru eta osasungarri izateko laguntza.

Bizkaia mailan bereziki oinarrituko gara, hona hemen zentru batzuk:

Centro	Localidad	Tipología personas usuarias	Tipo de plazas
Centro de Día Bekoetxe	BILBAO	Discapacidad secundaria a daño cerebral adquirido	☒ Jornada completa ☒ Media jornada
Centro Asistencial Errekalde	DERIO	Autismo o psicosis infantil	☒ Por tiempo indefinido
Centro Asistencial Olabe	MUXIKA	Autismo o psicosis infantil	☒ Por tiempo indefinido ☒ Plaza temporal
Centro Asistencial Urduña	ORDUÑA	Discapacidad intelectual moderada-severa	☒ Por tiempo indefinido
Centro Asistencial Loiu-Udaloste	BILBAO	Discapacidad intelectual moderada o ligera Menores con discapacidad psicofísica grave	☒ Por tiempo indefinido
Centro Asistencial Lusa	ZALLA	Discapacidad intelectual moderada o severa	☒ Por tiempo indefinido ☒ Media pensión
Centro Asistencial Zumelegi	ELORRIO	Discapacidad Intelectual moderada - severa	☒ Por tiempo indefinido
Centro Asistencial Mundaka	MUNDAKA	Discapacidad intelectual moderada o severa	☒ Plaza temporal ☒ Por tiempo indefinido
Centro Casa del Mar de Santurtzi	SANTURTZI	Trastorno mental grave	☒ Por tiempo indefinido ☒ Plaza temporal
Centro Asistencial Gallarta	ABANTO	Personas con discapacidad	☒ Por tiempo indefinido ☒ Plaza temporal ☒ En proceso de transformación

[asoziazioak](#)

FEVAS ELKARTEA

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideen alde lan egiten duten erakundeen elkarte da.

GAUTENA ELKARTEA

Gautena Autismoaren Espektroko Nahasmenduak dituzten Pertsonen Senideen Elkarte da, eta gizarteratzea bultzatzen duen gizarte batean bizitza osoa eta zoriontsua izateko laguntza eta aukera egokiak ematea du helburu.

APNABI ELKARTEA

APNABI Autismo Bizkaia irabazi-asmorik gabeko elkarte da, interes publikokoa deklaratu, eta Bizkaiko Espektro Autistaren Nahasmendua (TEA) duten pertsonen familiak biltzen ditu. Erreferentziako erakundea da bere jardun-eremuan.

ASPACE ELKARTEA

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Espainia osoko Garuneko Paralisisaren Arretarako erakunde nagusiak elkartzen ditu. Honekin, 17 autonomia erkidegoetan presentzia dauka, bere helburua da Paralisi zerebala duten pertsonen behar duten arreta maximoak lortzeko garapen pertsonalaren mailak izatea.

HAR-EMAN ELKARTEA

ONG bat da non, adimen-desgaitasuna duten pertsonen beren inguruneetan egiten dituzten ekarpen positiboak buruzko kontzientzia kolektiboa sortzea.

ARAZOAK ELKARTEA

Autismoaren eta Garapenaren Bestelako Nahaste Orokortuen Arabako Elkarte, Arazoak, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta 1982an sortu zenetik, erreferentzia izaten ari da Arabako TEA kolektiboaren arretan.

TALUR ERAKUNDEA

Talur trabaja con la finalidad de mejorar la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual, mediante la creación de un espacio inclusivo en el medio social y comunitar

ISABEL ORBE - DOWN ARABA

Isabel Orbe - Down Araba elkarte 1995ean sortu zen, guraso talde txiki batek erabateko integrazioa lortzeko duen kezka Down sindromea duten pertsonak eta lan-munduan sartzeko.

GUREAK ELKARTEA

Gureak 1975. urtean sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) desgaitasuna duten pertsonak laneratzearen bidez. Bere jarduerak lau arlotan banatzen dira, esate baterako, industria, zerbitzuak, publizitatea eta zuzeneko marketina eta zerbitzu asistentzialak. Horietatik lan-ekimen berriak sustatzen dituzte, lan-aukera egonkorak eta egokituak sortzeko jarduerak dibertsifikatuz.

AMESTEN ERAKUNDEA

Ezinduen bizitza hobetzeko helburu duen asoziazioa enpresei prestakuntza pertsonalak eskaintzen diete ezinduekin lan egitean nola tratatu jakin dezaten, baina ez dira haieli lana eskaintzeaz arduratzen, guk, ordea bai.

GAUDE ERAKUNDEA

Haien helburua: "Konpromiso etikotik lagundu, laguntza eta aukerekin, adimen urritasuna duen pertsona bakoitzak eta familia bakoitzak bere bizi-kalitatearen proiektua garatu dezan, gizarte justuago eta solidarioago batean txertatzea sustatuz".

Ezindu intelektualen bizi kalitatea hobetu nahi duten harren, ez dute lana eskaini ahal dizkieten inolako zerbitzurik, eta haien lan egiteko gaitasunak ere ez dituzte aztertzen.

EHLABE ERAKUNDEA

Desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea sustatzen duen euskal asoziazio bat da. Haien helburua, ezinduen enplegarritasuna hobetzea da. EHLABEk hainbat erakunde ditu, horiek erakunde bultzatzaileak eta dinamikoak dira, merkatuari balioa ematen diotenak jarduera lehiakorren eta kudeaketa profesionalaren bidez. Bestalde, EHLABEk erakunde publiko eta pribatuekin aliantzak sortu ditu, hala nola, Lanbiderekin, Euskal Herriarekin, Egeseekin, etab.

ERAGINTZA ERAKUNDEA

Gaixotasun mentalak dituzten pertsonen gaitasunak garatzeko, laneratzeko, enpleguari eusteko eta gizartean autonomiaz parte hartzeko zerbitzuak eskaintzen duen bizkaiko asoziazio bat da. Erakunde honek hainbat balio ditu. Hasteko, Eragintzak bere egunerokotasunean autonomia, pertsonen berdintasuna eta duintasuna balore moduan ditu. Bestalde, lankidetzan eta berrikuntzan oinarritzen dira, ezintasun mentalak dituzten pertsonenentzako etorkizun hobearekin errealitate bihurtzeko proiektua partekatzen duten erakundeekin. Amaitzeko, Eragintza era bateko konpromisoa du kalitate profesionalarekin eta kudeaketarekin, baina, batez ere, erakundearen giza kalitatearekin eta eskaintzen duten kalitatearekin.

Eragintza asoziazio erreferentea da ezintasun mentala dituzten pertsonentzat laneratzean eta lanpostuari eusteko. Alde batetik, Eragintza lan egiten du lan-merkatuan eta kalitatezko enpleguetan ezintasun mentalak dituzten pertsonak sar daitezen. Horretarako, laneratzeako programak, jarduerak eta

ekimenak sustatzen ditu. Beste aldetik, Eragintzak lankidetza eta aliantza sare zabala du beste euskal erakunde eta erakunde batzuekin eta gaixotasun mentala duten pertsonak lan-munduan integratzearen aldeko apustua egiten duten enpresak prestatu, aholkatu eta babesten ditu.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Elkarteek aliatu garrantzitsuak izan daitezke, ezintasunei lana bilatzen laguntzeko enpresa bat sortzerakoan. Hurrengo arrazoiengatik:

- Haien beharrei buruzko ezagutza espezializatua ematen dute
- Beste enpresen sareekin konektatzen dute.
- Prestakuntzan laguntzen dute.

Horrez gain, baliabideak, laguntzak eta diru-laguntzak eskuratzen laguntzen dute, eta araudiak ezartzeko aholkuak ematen dituzte. Haien lankidetza ikuspegi inklusiboa eta eraginkortasuna bermatzen du, proiektuaren arrakasta aukerak handituz.

Zergatik behar naute?

Elkarteek gure proiektuan parte hartzeko interesa izango dute, gure helburuak haien misioarekin bat datozelako. Ezintasun duten pertsonen lan-aukerak hobetzea eta haien integrazio soziala bultzatzea da gure asmoa, eta horrek elkarteen gizarte-eragina handitzen lagunduko du. Gainera, gure enpresak baliabide eta ezagutza berriak eskainiko dizkie, kolektiboaren ongizatea hobetuz. Elkarrekin lankidetzan aritzeak helburu sozialak eraginkorrago betetzea ahalbidetuko du.